



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2019.12.17an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO

OÑATI

BOKALAK

GARAZI LARREA ZUMELAGA
UNAI ELKORO OIANGUREN
AINHOA CABERO GARCIA
MARIA UBARRETXENA CID
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA
ANDER GARAY ZABALETA
GORKA ARTOLA ALBERDI
AINHOA LETE ZABALETA
CRISTINA MARQUINA IGARZA
IRAIZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
EUGENIO OTSOA UGALDE
IZARO ELORZA ARREGI
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
BERGARA
ELGETA
ESKORIATZA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI

ETORRI GABEAK

ARITZ MURUA ACHA

ARRASATE

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2019ko abenduaren 17an, 9:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno anderea, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2019ko azaroaren 26an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- 2020ko Aurrekontu Orokorraren zirriborroaren aurkezpena

Kontu-hartzaileak 2020ko Aurrekontua Orokorraren zirriborroa aurkeztu du. Jakinarazi du urtarrilaren 8an egingo dela Kontu eta Ogasun Batzorde bereziaren bilkura eta ordurako aldaketa proposamenak aurkeztu beharko direla, urtarrileko Gobernu Juntaren bileran hasierako onespina eman ahal izateko.

2.2.- 2020ko lan egutegiak onartzea

Pertsonal Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ONARTU DITU langileen ordezkariekin negoziatutako 2020. urterako lan-egutegiak. Honako hauek dira:

- Zerbitzu Orokorrerako langileen egutegia.
- Kontu-hartzaitzako langileen egutegia.
- Ingurumen Zerbitzuko langileen egutegiak:
 - Bulegoetako langileak.
 - Etxeko hondakin bilketa zerbitzuko langileak.
 - Garbiguneetako langileak.
- Garapen Ekonomikorako Agentzia Zerbitzuko langileen egutegia.
 - Orokorra.
 - Turismo Teknikarien banakako egutegia.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2.3.- Foru Kontratazio Zentrala

a) Ibilgailuen aseguru kontratu eratorria luzatzea

Zegokion espedientea izapidetu ondoren, Departamentuko foru diputatuak, 2017ko azaroaren 6ko foru aginduaren bitartez, BILBAO, COMPAÑÍA ANÓNIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A. enpresarekin "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez ibilgailuen aseguru polizak kontratatzeke esparru akordioa" burutzea ebatzi zuen.

Mankomunitate honek, espediente honi atxikia zegoenez, aipatu esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitu eta formalizatu zuen. Kontratu honek urtebeteko indarraldia du, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, hiru luzapen egiteko aukerarekin, bakoitza urtebetekoa.

2019ko azaroaren 22ko foru diputatuaren agindu bitartez, Esparru Akordioa beste urte betez luzatzea ebatzi denez (2. luzapena), eta Mankomunitateak kontratatzen diren aseguru polizen beharra izaten jarraitzen duenez, dagokion kontratu eratorriaren iraupenaren luzapena ebatzea dagokio.

Hori dela eta, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Beste urtebetez luzatzea (2. luzapena), 2020ko urtarrilaren 1eko 00:00etatik 2020ko abenduaren 31ko 24:00etara bitartean, ibilgailuen aseguru polizak kontratatzeke BILBAO, COMPAÑÍA ANÓNIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A. enpresarekin sinatutako kontratu eratorria.

Une honetan Jose Ramón Zubizarreta irten da bileratik.

b) Langileen bizitza-aseguru eta istripu-aseguru kolektiboa kontratatzeke espedienteari atxikitzea

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2011ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentralak aurrera eramango duen eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzea erabaki zuen, horretarako Foru Aldundiarekin zegokion hitzarmena sinatuz.

Aipatu Zentralak, esparru-akordioaren prozedura bitartez, langileen bizitza-aseguru eta istripu-aseguru kolektiboa kontratatzeke espediente berria irekitzeke asmoa du.

Eta Mankomunitate honek aseguru honen beharra duenez, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Langileen bizitza-aseguru eta istripu-aseguru kolektiboa kontratatzeke Kontratazioen Zentralak irekiko duen esparru-akordioaren espedienteari atxikitzea, 2011ko maiatzaren 18ko Gobernu Juntak onartutako hitzarmenean,



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako eran eta baldintzetan.

2. Konpromisoa hartzea enpresa esleipendunari kontratu eratorria esleitzeko Foru Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.

2.4.- Prezio publikoen aldaketa

Kontu-hartzailearen txostena ikusirik, eta bere proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Hondakin bilketarako ondorengo materiala saltzeko gaur egungo prezio publikoak aldatzea, honela finkatuz:

Materiala	Prezioa unitateko BEZ gabe
Kontrol elektronikodun sarrailak irekitzeko TXARTELA	1,65 €
10 Litroko edukiontzia	2,65 €
20 Litroko edukiontzia	8,00 €
40 Litroko edukiontzia	7,50 €
60 Litroko edukiontzia	38,00 €
80 Litroko edukiontzia	25,00 €
120 Litroko edukiontzia	25,00 €
240 Litroko edukiontzia	50,00 €
360 Litroko edukiontzia	78,00 €
1000 Litroko edukiontziak	160,00 €
10 litroko POLTSA konpostagarrien 20ko bobina	1,15 €
40 litroko POLTSA konpostagarrien 20ko bobina	3,70 €
120 litroko POLTSA konpostagarrien 20ko bobina	9,00 €
60 litroko POLTSA konpostagarrien 20ko bobina	6,90 €
Kaxa garraioa	5,00 €
Aparteko kaxa	1,25 €
Pedalak 120	21,58 €
Pedalak 1000	30,21 €
Sarrailak	31,00 €
Edukiontzi berrerabiliak	80,00 €
Edukiontzien euskarriak	175,00 €



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Kandatuak	27,50 €
Inox 4ko esekitokia	41,34 €
Inox 8ko esekitokia	57,18 €
Inox 12ko esekitokia	80,82 €
Inox 16ko esekitokia	113,00 €
Inox 20ko esekitokia	143,88 €

Material erosketan banku helbideratze bitartez ordaintzen duenak %5eko hobaria izango du.

2. Zerbitzuetik kanpoko lan bereziak egiteagatik gaur egungo prezio publikoak aldatzea, honela finkatuz:

Pertsonal zerbitzuaren prezioa				
Prezioak €/ordua, BEZik gabe				
Kategoria	Eguna	Gaua	Jaieguna	Jaieguna gauzez
Gidaria	32,50 €	36,00 €	35,50 €	38,00 €
Peoi gidaria	28,50 €	31,00 €	32,00 €	35,00 €
Peoia	27,50 €	30,00 €	31,50 €	34,00 €
Mekanikoa	38,00 €	---	47,50 €	---

Material erabileraren zerbitzuaren Prezioa	Unit.	Prezioa, BEZik gabe
Atzeko kargako ibilgailua, 3500 pma 5 m3	€/ordua	6,56 €
Atzeko kargako ibilgailua, bi ardatz, 8 m3	€/ordua	12,02 €
Atzeko kargako ibilgailua, bi ardatz, 12 m3	€/ordua	15,30 €
Atzeko kargako ibilgailua, bi ardatz, 16 m3	€/ordua	16,39 €
Atzeko kargako ibilgailua, hiru ardatz	€/ordua	19,67 €
Kutxa irekiko ibilgailua, 3500 pma	€/ordua	3,28 €
Kutxa irekiko ibilgailua, bi ardatz, garabia-plataforma	€/ordua	8,74 €
Kutxa irekiko ibilgailua, hiru ardatz, garabia-plataforma	€/ordua	12,02 €
Alboko kargako ibilgailua	€/ordua	19,67 €
Goi ibilgailua, garabia-kakoa	€/ordua	16,39 €
Edukiontzia garbitzeko alboko ibilgailua	€/ordua	19,67 €
Alboko ibilgailu satelitea	€/ordua	6,56 €
Bi ardatzeko ibilgailua ampliroll	€/ordua	8,74 €
Hiru ardatzeko ibilgailua ampliroll	€/ordua	12,02 €
Ibilgailu arin elektrikoa eta antzekoak	€/ordua	1,09 €
Furgoia eta antzekoak	€/ordua	3,28 €
Ikuskapen ibilgailua eta antzekoak	€/ordua	2,19 €



DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

2.5.- Kobra-gaitzen espedientea onartzea

Kontu-hartzailearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Orotara, 2.221,27 € sarrera eskubideak kobra-gaitz izendatzea, agiriak diru-bilketatik kenduz eta kobrantza eskubideak kontabilitatetik balio gabetuz. Hona hemen urtekako eta zergakako xehetasuna:

Urtea	Zenbateko gordina
2015	1.707,01 €
2016	272,90 €
2017	241,36 €
Guztira emaitza	2.221,27 €

Zerga	Zenbateko gordina
Edukiontzi salmenta	733,01 €
Epeleko tasak	286,90 €
Poltsa salmenta	241,36 €
Zigorrak	960,00 €
Guztira emaitza	2.221,27 €

2.6.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Nagusirako ordezkari ordezkako izendatzea

Mankomunitateko Gobernu Juntak, 2019ko urriaren 4an egindako bilkuran, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa eratzeko lankidetzaren hitzarmenaren laugarren estipulazioan zehazturiko prozedura jarraituz, Kontsortzioaren Batzar Nagusirako ondorengo ordezkari titularrak izendatu zituen:

1. MAITE ANTÓN LENO
2. GARAZI LARREA ZUMELAGA
3. UNAI ELKORO OIANGUREN



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Orain, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Nagusirako ondorengo ordezkari ordezkioak izendatzea:
 1. IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA (Maite Antónen ordezkioa)
 2. GORKA ARTOLA ALBERDI (Garazi Larrearen ordezkioa)
 3. JOSE RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA (Unai Elkororen ordezkioa)

Beraz, ordezkaritza honela gelditzen da:

Titularrak:

MAITE ANTÓN LENO
GARAZI LARREA ZUMELAGA
UNAI ELKORO OIANGUREN

Ordezkoak:

IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
GORKA ARTOLA ALBERDI
JOSE RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA

3.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Enplegua eta Prestakuntza

3.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; hainbat luzapen

- A.U.G. (UNAGO S*LAR, S.L.); eskaera berria

Aretxabaletako Enpresa Ekintzetarako Zentroaren zerbitzu modulu bat erabiltzeko eskaeraren berri eman da. Jarduera honako hau izango da: proiektu eta instalazio fotoboltaikoak.

Tutorearen txostena ikusirik, eta Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

- A.U.G. ekintzaileari baimena ematea Aretxabaletako Enpresa Ekintzetarako Zentroaren (5-AR) zerbitzu modulua eskusiboki erabil dezan.

Erabaki honen jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean onuradunak ez badu Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 8. artikuluan zehazturiko dokumentazioa eta fidantza aurkezten, baimen hau indarrrik gabe geratuko da.

Baimen hau urtebeterako izango da eskatzaileak aipatu dokumentazioa eta fidantza aurkezten duenetik aurrera.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- V.D.L. (Banbu); 2. urterako luzapena

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2021eko urtarrilaren 1era arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 2-IM industri modulua erabiltzeko baimena, V.D.L. ekintzaileari emana, Gobernu Juntaren 2018ko azaroaren 20ko erabaki bitartez.

3.2.- Agentzia Zerbitzuko behin behineko izendapenak

Garapen Agentzia Batzordearen irizpen txostenak irakurri dira. Txosten hauetan 2020. urtean Agentzia Zerbitzuak, beste Administrazio batzuen finantzazioarekin, kudeatuko dituen hainbat programa garatzeko aldi baterako pertsonalaren beharra jasotzen da.

Alde batetik, teknikari baten beharra, ondorengo programak garatzeko:

- “Goiaz”, lanbide heziketa bultzatzeko azoka eta ekimenak.
- “Gazela Enpresak”, unibertsitateko ikasleen arteko lehiaketa.
- “Hazilan”, gazte titulatu laneratze prozesuak ahalbideratu eta errazteko.

Lanaldi erdiko administrari baten beharra, aipatu “Hazilan” programa garatzeko.

Eta bi lan orientatzailearen beharra LANBIDEk finantzatutako ondorengo programak garatzeko:

- “Orientazio Ekintzak”
- “Enplegu Zentroa”

Agentzia Zerbitzuko arduradunaren txostenak ere irakurri dira, non esaten den 2020rako izendapen hauek ezinbestekoak direla.

Gobernu Juntak, Garapen Agentzia eta Pertsonal Batzordearen proposamenak jarraituz, aho batez ZERA ERABAKI DU.

1. Mankomunitateak lan hauetarako duen lan poltsa erabiliz, 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte teknikari bat bitarteko funtzionario izendatzea, 2020. urtean Garapen Agentzia Zerbitzuak garatu beharreko ondorengo programak garatzeko: “Goiaz”, “Gazela Enpresak” eta “Hazilan”. Hileko ordainsari gordina 2.381,44 €koa izango da, ondorengo xehekapenaren arabera:
 - Soldata: 978,43 € (A2)
 - Lanpostu-mailako osagarria: 418,53 € (18)
 - Berariazko osagarria: 984,48 €.
2. Agentzia Zerbitzuko lanaldi erdirako administraria den Naiara Aranburu 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte beste lanaldi erdirako bitarteko funtzionario izendatzea “Hazilan” programa garatzeko lan administratiboak



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

egiteko. Hileko ordainsari gordina 1.158,63 €koa izango da, ondorengo xehekapenaren arabera:

- Soldata: 374,69 € (C1)
- Lanpostu-mailako osagarria: 196,94 € (17)
- Berariazko osagarria: 587,00 €.

3. Lan orientatzaileen lan poltsa erabiliz, 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte bi lan orientatzaile bitarteko funtzionario izendatzea LANBIDE-k finantzatutako 2020ko Enplegurako Orientazio–Ekintza programa garatzeko eta Enplegu Zentroa kudeatzeko. Hileko ordainsari gordina 2.446,97 €koa izango da, ondorengo xehekapenaren arabera:

- Soldata: 978,43 € (A2)
- Lanpostu-mailako osagarria: 418,53 € (18)
- Berariazko osagarria: 1050,01 €.

4.- LEHENDAKARITZA

4.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

19/74.- 19/23 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA LAUROGEITA BOST MILA ETA BERROGEITA HAMAZORTZI EURO ETA BERROGEITA ZORTZI ZENTIMO (185.058,48 €).

5.- GALDE-ERREGUAK

Ander Garay Juntakideak ondorengo eskaera hauek egin ditu:

- Ekitaldi honetako aurrekontuaren exekuzioa.
- Fakturen onespenei lehendakaritzaren ebazpenen kopia osoa.
- Tapoien bilketa egiteko proposamena aztertzea.

Azkenik, Anderrek esan du berak uste duela urriaren 4ko Gobernu Juntaren bileran bakarrik Maite Antón lehendakariaren dedikazio partziala onartu zela, ez Garazi Larrearena, nahiz eta horretaz hitz egin.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 10:30etan, bukatutzat eman da bilkura.

LEHENDAKARIA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA